



Aurreko ostegunean irekiera
ekitaldia egin zuenetik,
Mirian Carro
Kantoi tabernako
arduradun berria da

Ekainaren 8ko giza-kate erraldoia, eskualdea Arakil aldera begira dago



Euskal Herri osoko
biztanleek eskuz esku
lotuko dute
Durango eta Iruñea
arteko distantzia.

Erabakitze eskubidearen
aldeko ekimena sustatu
dutenek milaka herritar
batuko dituzte ekainaren
8an. Tartean eskualdeko ehunka
eta ehunka herritar. Urnietako eta
Andoaingo eskuak elkar lotuta



Aurreko larunbatean kalejira eta giza-katea egin zuten Andoainen.

izango dira, gainera, hurrenez
hurren ibilbide osoaren 102. eta
103. kilometroak osatu behar bai-

tituzte. Aurreko egunetan hitzor-
duak burutu dira Urnietan eta
Andoainen. Eta, pixkanaka, denak

ere Irurtzun aldera begira daude.
Arakilen izango da hitzordua.
[ESKUALDEA, 3. ORRIALDEA]

Eraitsi dute



Exkerranea etxea astearte
eguerdian eraisten hasi ziren
eraisten.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Lehen taldekoa



Denboraldi berrian Realeko
lehen taldean jokatuko du
Gaztañaga andoaindarrak.
[KIROLA, 11. ORRIALDEA]

“Bizipoza” ikuskizuna Urnietan

Pirritx, Porrotx eta
Marimotots pailazoez
saio berriena eskainiko
dute Egape ikastolan,
hurrengo asteazkenean.

Aiurrik eta Iñistorrak anto-
latuta eta Udalaren babe-
sarekin, Pirritx eta Porrotx
pailazoez ikuskizuna eskainiko
dute maiatzaren 28an arratsalde-
ko 17:30etan hasita.

Oraindik ere sarrerak esku-
ragarri daude zazpi euroko
prezioan Urnietako Kantoin
eta Amailurren; eta baita An-
doaingo Ernaitzan eta Aiurri-
ko bulegoan ere.

“Bizipoza” ikuskizunak el-
kartasuna hizpide nagusi du.
Aiora Zulaika “Pirritx”ek ho-
rrela definitu zuen egitasmo
berria: “Pupu eta Lorerekin
batera Irrien Lagunak Kluba
jaio zen; osasuna, natura, zien-

tzia, kultura, baita elkartasuna
ere lantzen dituzten pertso-
naiekin batera. Gaur egun,
orotariko behar bereziak di-
tuzten haurren eta familien
Euskal Herriko hainbat elkar-
terekin dugu harremana, eta
elkarri laguntzen diogu. Balo-
rez eta jende jatorraz betetako
taldeak dira, eta oso aberasga-
rria da elkarrekin egitasmoak
lantzea”.

[ESKUALDEA, 12. ORRIALDEA]



Etiopiarra joateko deialdia

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Argazki rallya igandean

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]

GOAZEN
JOLASTERA!
2014



Andoainen
bertan nahiko
jolas egiteko
udalekoa
2014ko uztailean

Non:

Andoaingo Udala
Gazte Lokala, Pio Baroja 1
Tel.: 943 300 746

Noiz:

Maiatzaren 22tik ekainaren 5era.
Egunero 17:00etatik 19:30era
eta astearte eta ostegunetan
10:30etik 12:30era.



ANDOAINGO UDALA
Euskararen
Normalizaziorako Lansaila

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizuntza Politikako Sailburuordetza

Aldaketa Kantoï tabernan



Mirian Carro tabernari berria San Juan plazako Kantoï tabernan.

Mirian Carro hernaniarrak hartu du Kantoï tabernaren ardura, **Mari Karmen Astiasar**en ordeaz. Aurreko ostegun iluntzean inaugurazio

ekitaldia egin zuten eta bihar ramunean Mirian oso pozik zegoen, irekiera ekitaldira herritar askotxo bertaratu zirelako. Zorte on!

Denda Berriko kuota ordaintzeko epea

Elkarteko arduradunek elkarteko kide direnei oharra igorri nahi diete. Urteko kuota be-

rritzeko garaia heldu dela eta, maiatzaren 30a izango da ordaintzeko azken eguna.

Gazte Festak maiatzeko azken asteburuan



Jaietako emateko txupinazoaren ondoren Egape dantza taldeak saioa eskainiko du, maiatzaren 30ean.

Maiatzeko azken egunetan Gazte festak ospatuko dira, maiatzaren 30ean hasi eta ekainaren 1a bitarte. Hitzorduz beteriko asteburua iritsi aurretik, ordea, jaien atariak egun hauetan burutuko dira. Hurrei zuzenduta, esaterako, badira nabarmendu behar diren bi egun. Lehena, **Benjamin jaia**, larunbat honetan bertan ospatuko dena. Tradizio luzeko ospakizuna da, zeinean Urnietakoekin batera beste herrietako hurrek parte hartzen duten.

Bigarren hitzordu esanguratsua datorren asteazkenean burutuko da, pailazoan eskutik. **Bizipoza** ikuskizun berriena eskainiko dute **Pirritx**, **Porrotx** eta **Marimotots** pailazoek Egape ikastolako jolastoki estalian.

Hitzordu gehiago asteburuan
Asteburu honetan ere Gimnasia erritmiko eta judo erakustaldiak antolatu dituzte udal kiroldegian. Eta igandearako argazki rallyaren edizio berria.

Udala eta Misio batzordearen arteko hitzarmenaren ondorioz

Etiopiara joateko deialdia, herriko gazteei zuzendua

Urnietako Udalak eta Misio batzordeak **Etiopia Utopia** elkartearen bitartez, Wukro aldera bolondres modura joateko bekaren bigarren edizioa martxan jarri dute. Esan beharrik ez dago herriko gazte guztiak deialdian parte hartzea deituta daudela. Iazko edizioan Maialen Hernandez Fernandez izan zen Afrika aldera abiatu zen gaztea, eta haxe izan zen itzuleran Aiurri azaldutakoa: “Gauza ugari ikusi eta ikasteko aukera izan dut hiru hilabetetan. Itzuli naizenetik, hemen dudana bizi-modua hangoarekin alderatu ohi dut maiz. Egia esan, han, gutxiagorekin, alaitasun eta irribarre gehiago ikusten da. Horrelako xehetasunek hausnarketa sakonera naramate”. Esperientzia bizi-tzeko gonbitea egiten zuen, era berean: “Edonor joan daiteke; eta hemengo lan egoera ikusita, jende gaztearentzat aukera paregabea dela iruditzen zait”.

Bada, bigarren deialdia martxan jarri dute. Aukeratuak hiru hila-



Iazko edizioan Maialen Hernandez Fernandez izan zen Afrikara abiatu zen gaztea.

beteko egondaldia egingo du Etiopiako Wukron. Bete beharreko baldintzak honakoak dira:

1. Unibertsitateko titulua, lanbide heziketa edo lanbide batean esperientzia (iturgina, igeltseroa, elektrizista) izatea.
2. Komunikatzeko oinarritzko ingeles maila izatea.
3. Urnietan bizi edo jaio izana.
4. Lanerako eta ikasteko gogoia.

IZEN-EMATEA

gazteinformazioa@urnieta.org
Kurrikuluma e-postara bidali edo Gazte Informazio Bulegoan utzi. Epea ekainaren 20an amaitzen da. Argibideak: Jose Ramon Jauregi. 943 33 13 46. 8:00-13:00 / 17:00-19:00.

Deialdia **Urnietako Parrokiak**, **Etiopia Utopia** Fundazioak eta **Urnietako Udalak** egin dute.

Udalak euskararen alde egiten dituztenak sarituko ditu

Gida-baimena euskaraz eta dohainik lortzeko aukera



Eskualdeko hamar auto-eskola ezberdinek bat egin dute ekimenarekin.

Urteko sasoi honetan hasita, gida-baimena eskuratzeko ikasten hasten den herritar kopurua goruntz doa. Jakinaenez, azken urteetan gida-baimenaren arlo teorikoa euskaraz egiteko aukera eskaintzen ari dira eskualdeko autoeskoletan, Udalek lagundutako egitasmo baten baitan. Udalek aitortu bezala, goruntz doan joera da: “Kopurua urtez urte goruntz doa, iaz 135 izan ziren

Buruntzalde osoan eta aurten gehiago izatea espero dugu”. Aurki egitasmoaren informazioa jasoko dute euren etxeetan 2014an 18 urte beteko dituzten gazteek, baina edozein herritarrek informazio osoa eskura dezake autoeskoletan. Udalek euskararen alde egiten dutenak saritu nahi dituzte. Euskaraz teorikoa gainditu eta ziurtagiria aurkezten dutenen artean hamai-ka sari banatuko dira: Andoai-

nen 2, Astigarragan 1, Hernanin 3, Lasarte-Orian 3, Urnietan 1 eta Usurbilen 1. Sarietako teorikoa balioa izango dute, gehienez ere 400 euro. Inprimakia bete eta honako autoeskoletan aurkez daiteke: Andoingo Bengoetxea eta Mendi; Urnietako eta Usurbilgo Solozabal, Loiolako Otamendi, Hernaniko Hernani, Lagunak eta Otamendi; Lasarte-Oriako Izarra, Lasarte eta Mugica auto eskoletan.



Gure Esku Dago ekimenak Andoainen eta Urnietan, lan eta lan

Metroa erosi eta busean joan

Ekainak 8, igandea

Andoain-Arakil

“Andoaini 103. kilometroa osatzea dagokio, Nafarroako Arakil aldean, Irurtzun inguruan. Trafiko eragozpenak saihestearren, 10:00etarako tokian bertan egoitea eskatu dute antolatzaileek. Giza-katean parte hartzeko izena eman eta metroa erosi behar da, 5 eurotan. Saltokiak: Urrats, Ernaitza, Keinu, Li, Ikelatz eta Aralai.

103. kilometrora inguratzen Andoaindik aterako diren autobusak antolatzeko asmoa dago. Bus txartelak salgai jarriko dira Keinun, Ernaitzan, Xaxin eta Lanbroan. Txatelaren prezioa 10 eurokoa izango da (12 urtetik beherakoentzat, 5 euro). Autobuserako txartela erosteko azken eguna ekainaren 2a izango da eta metroa erosterakoan autobusean joateko asmoa dutenek ere, autobuserako txartela erosi behar dute.

Itzultzeko, berriz, bi ordutegi zehaztu dira: bata 13:30etan eta bestea arratsaldeko 19:00etan. Txartela erostearrekin batera, bakoitzak zehaztu beharko du zein ordutan itzuli nahi duen. Autobusak Makaldegitik aterako dira 08:45ean”.

Ekainak 8, igandea

Urniet-Arakil

“Ekainaren 8ko giza-katerako autobusetan izena emateko epea ireki da. Xauxar, Kanto, Trazos eta Muazpin eskuratu ahal izango dira txartelak, ekainaren 5a arte, sei eurotan.

Bi aste eta erdi falta dira ekainaren 8ko giza-katerako. Urnietari, Astigarraga, Goizueta eta Aranorekin batera, 102. kilome-



troa egokitu zaio, Nafarroako Etxarren herrian (Irurtzundik hiruzpalau kilometrora). Urnietako Gure Esku Dago taldeak hara bertaratzeko autobusak erreserbatu ditu, dagoeneko, eta txartelak eskuratzeko deia egin urnietar guztiei. Kanto eta Xauxar tabernetan, Muazpi harategian eta Trazos ileapaindegian eros litezke ekainaren 8an Etxarrenera joateko txartelak, 6 euroko prezioan. Bi urtetik gorako umeek ere txartela erosi beharko dute, eta gurasoren bat bi urte baino gutxiago dituen haurren bat eramatekoa bada, antolatzaileei jakinarazi beharko die, autobus gidariak aulki berezia egokitzeko. Txartela eskuratzeko azken eguna ekainaren 5a izango da, osteguna.

Asmoa goizeko 09:00etan abiatzea da. Horretarako, 08:30etan egin da hitzordua, ambulatorio zaharrek biribilgunean, autobusek arazoak izan ez ditzaten. Goizeko hamarretarako jendea dagokion kilometroan egoteko eskaera egin dute antolatzaileek, eguerdirako giza-katea arazorik gabe antolatu ahal izateko. Giza katea bera ordu er-

dikoa izango da, eguerdian hasi eta 12:30ak arte. Ondoren, autobusak Arbizuraino joango dira, han elkartuko baitira Sakanara bertaratutako herritar guztiak, eguna jai giroan ospatzeko. Urnietara buelta arratsaldeko 18:00-19:00ak alderako iragarri da.

Autoetan joateko aukera ere badago. Lekua soberan dago Etxarren eta inguruko belazeeetan, baina autoan doazenek garbi eduki behar dute lehentasun osoa autobusek izango dutela. Alegia, agian espero baino bide luzeagoa egin beharko dutela oinez, dagokien tokiraino iristeko. Otorduaren inguruan, antolatzaileek norberak bere janaria eramateko gomendatzen dute, Etxarren eta Arbizun zer jan eta edana lortzeko aukera egongo bada ere. Bestalde, herritarrek Etxarrengo egonaldia girtzeko ekimenak antolatzeko deia ere egin du GED Urnietak.

GED Urnietak mahai pare bat jarriko ditu larunbatean Guria taberna ondoan, kamisetak saltzeko. Autobusetan izena emateko aukera ere egongo da, goizeko 11:00k eta 13:00ak bitarte”.

Aurreko larunbatean antolatu zuten

Giza-katea jai giroan, Andoainen



Erraldoiak eta buruhandiak Santa Krutz zubian.



Ehunka herritarrek bat egin zuen delaldiarekin, giza-kate handia osatuz.

Andoaingo Gure Esku Dago ekimenak erabakitze eskubidearen aldeko ekitaldi nagusia antolatu zuen herrigunean, aurreko larunbatean. Trikitilarien doinuei jarraituz, Goikoplazatik Juanita Alkain plazaraino jaitsi ziren kalejiran. Ondoren, Kale Nagusitik Santa Krutz elizaraino giza-katea egin zuten. Ekainaren 8rako entsegu modukoa izan zen. Hitzordu nagusirako geroz eta gutxiago falta da.

Euskal Herri osoan hainbat herritan egiten ari diren bezala, Andoainen ere herrian bertan giza-katea antolatu zuten. Erabakitze eskubidearen aldeko ekitaldia izateaz gain, ekainaren 8ko hitzordu nagusirako entsegu orokor modukoa izan zen. Geroz eta gutxiago falta da hitzordu nagusirako. Egun hauetan andoaindar gehiagoren babesa beharko da, aurreikusitako helburuetara iristeko.

Mahai-ingurua Lekaion

Kultur jaialdia antolatu eta lau egunera mahai-ingurua antolatu zuen Urnietako taldeak. Maila handiko solaskideak aritu ziren hizketan. **Maddalen Iriarte** ETB1eko aurkezlearekin batera, **Txente Rekondo**, **Adrian Zelaia** eta **Eguzki Urteaga**.



Argazki rallya igandean

Igande honetan Argazki rallyaren XXI. edizioa burutuko da herrigunean. Aurreko edizioetan ez bezala, izen-emaitea Saroben egingo da aurten goizeko 09:30etan hasita. Kamara hartu eta argazkiak ateratzeko deialdia irekia da. Bi mailatan hainbat sari banatuko dituzte. Helduen mailan oroigarria eta dirua:

- 1. Argazki-bilduma: 200 euro.
- 2. Argazki-bilduma: 100 euro.
- 1. Argazki-bilduma (Urnietako): 100 euro.
- 2. Argazki-bilduma (Urnietako): 50 euro.
- Argazki onena, 1.saria: 100 euro.
- Argazki onena, 2.saria: 50 euro.

Parte hartuko duten argazkilarien lan guztiakin erakusketak egingo dute Lekaion, ekainaren 10etik 13ra. Sari banaketa azken egunean izango da, 19:30etan hasita.

Argazkiak aurkezteko epea maiatzaren 26tik 28ra Bertan bulegoan (7:30-14:30).

SARI BANAKETA EKITALDIA

Antia literatur sariketa

On Manuel Antia 1830ean jaio zen urretxuarra, Urnietako apaiz lanetan aritu zen. Idazle bezala poesia, ipuinak, eliz-liburuak, eleberriak eta hainbat artiku-

lu idatzi zituen euskaraz. Euskararen bultzatzaile eta sustatzaile izateagatik, Udalak bere izena darman lehiaketa antolatu zuen orain hogeitun urte.

Antia Literatur lehiaketaren XX. edizioko sari banaketa ekitaldia izan zen maiatzaren 16an, ostiralean, Urnietako Gaztelekuan. Aurten, beste behin ere, jende askotxo bildu zen irabazleen izen-abizenak jakiteko asmoz.

Bi kategoria egon ziren lehiaketan; batetik, haurren kategoria, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat eta, bestetik, gazteen kategoria, 12 urtetik 16 urte bitartekoentzat.

Haurren kategoriako irabazlea **Maitane Arretxe** izan zen, “Heriotzaren bidea” idazlanarekin. Bigarren saria **Olatz Gorroñoren** “Begira ezazu aurrera” idazlanak jaso zuen eta, azkenik, hirugarrena **Gorane Cobasen** “Mundu hobeago bat” lanak.



Bestalde, gazteen kategorian, **Narrea Agirre**ren “Maitasunetik maiteminera” izendatu zuten irabazle. 600 euroko

saria jaso zuen. Bigarrena **Aritz Lekuona** izan zen, “Bihurgune Biziduna” idazlanarekin. 360 euro irabazi zituen. Azkenik,

180 euroko saria eta hirugarren postua **Olatz Goyak** lortu zuen “Bizitza aldatu zion begirada” lanarekin.

Gazte festak 2014

Maiatzaren 24tik ekainaren 1era

Larunbata, maiatzak 24

9:00-14:00 Benjamin festa 2014 kiroldegian, Urnietako eskola kirol kontseiluak antolatuta.

15:30-17:30 Gimnasia artistiko erakustaldia kiroldegian, Izurde klubak antolatuta.

17:30-19:00 Judo erakustaldia udal kiroldegian, Adarra elkar-teak antolatuta.

Igandea, maiatzak 25

9:30-10:00 Urnietako XXI. Argazki Digital Rallyaren izen emaita, Sarobeko harrera gunean.

Asteazkena, maiatzak 28

17:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Egape ikastolako pilotalekuan, Iñistorra elkar-teak antolatuta. Sarre-rak aurrez salgai, 7 euroan.

Ostirala, maiatzak 30

17:30 Egurrezko joko erraldoiak Plazido Muxika plazan, Gaztelekuko antolatuta.

18:30 Txokolatada gaztetxoentzat Gaztelekuan, Plazido Muxika plazan.

19:00-20:00 Herriko buruhandi eta erraldoien kalejira.

19:00-22:00 Intzak Hik ekitaldi gastronomikoa San Joan plazan, Poxta Zahar elkar-teak antolatuta.

20:00 Jaiei hasiera emateko txupinazoa, udaletxean. Ondo-oren, Egape Dantza Taldeko dantzarien emanaldia.

20:15-22:00 Bosko Anitz txarangaren irteera San Joan plaza-tik.

23:00-04:00 Musika kontzertuak San Joan plazan (edo Saroben), Poxta Zahar elkar-teak antolatuta.

Larunbata, maiatzak 31

10:00-13:00 Puzgarriak Egape ikastolako jolaslekuan.

10:00 Diana, Urnietako Txanbolin txistulari bandarekin.

11:00 VIII. Urnietako Dantzan jaialdia, Egape dantza taldeak antolatuta: dantzarien topagunea Egape ikastolan eta Eguzki-Lore (Gasteiz) dantza taldeari harrera.

11:00-14:00 Gazteentzako dardo txapelketa, Dardoka elkar-teak antolatuta bere egoitzan: Isidro Setien 2, behea.

11:45 VIII. Urnietako Dantzan jaialdia: dantza saioak herriko kale eta plazetan 4 edo 5 ibilbidetan banaturik.

12:00 VIII. Urnietako Dantzan jaialdia: dantzari txikien emanaldia San Joan plazan.

12:00 Anplipoteoa herriko kaleetan zehar, Poxta Zahar elkar-teak antolatuta.

13:00 VIII. Urnietako Dantzan jaialdia: emanaldi nagusia Plazido Muxika plazan (edo kiroldegian).

14:00 Herri bazkaria San Joan plazan (edo Egapean), Poxta Zaharrek antolatuta.

14:30 VIII. Urnietako Dantzan jaialdia: dantzarien bazkaria Egape ikastolan.

15:00-18:30 Euskadiko Emakumeen Txirrindulari txapelketa, Urnietako saria, herrian zehar, Poxta Zaharrek antolatuta.

16:00-22:00 Helduentzako dardo txapelketa, Dardoka elkar-teak antolatuta bere egoitzan: Isidro Setien 2, behea.

16:30 Eszenografia, Habitantes de Innsmouth rol taldeak antolatuta, bere egoitzan: Urbita 6.

17:30-21:00 Jokoak Idiazabal kalean, Poxta Zaharrek antolatuta.

18:00-19:00 VIII. Urnietako Dantzan jaialdia: Dantza Plazan ekimena San Joan plazan.

Igandea, ekainak 1

10:30 Diana, Urnietako Txanbolin txistulari bandarekin.

12:00 Txanbolinek eskainitako kontzertu-dantza emanaldia, elizako zimitorioan.

12:30 Herriko erraldoi eta buruhandien kalejira.

16:30 Mahai jokoak eta kartak, Habitantes de Innsmouth rol taldeak antolatuta bere egoitzan: Urbita 6.

17:00 Gaztetxoentzako makillaje, globoflexia, txapa eta lepokoien tailerrak, Plazido Muxika plazan.

18:00 Familientzako musika eta dantza zuzenean, Dantza-kasting-en eskutik, Plazido Muxika plazan.

19:00 Ingo al deu? taldearen erromeria, San Joan plazan.

21:00 Jaiei amaiera emateko txupinazoa eta azken traka.

Haurrentzako feriak
Jakutegi plaza inguruan



Urnietako Udala

Exkerranea bezala ezaguna den etxea eraitsi dute

Herriko paisaiatik desagertu den eraikina



Aingurasutegi kaleko ikuspegitik, hondeamakinak ingurua garbitzen ari dira. Asteartean eraitsi zuten eraikin zaharra.

Maiatzaren 26rarte Aingurasutegi kalea ibilgailuen pasabiderako itxita egongo da, Exkerranea bezala ezaguna den etxea botatzen ari direla-

ko. Etxea eta atzekaldeko ingurua garbituko dute etorkizun batean etxebizitza berriak eraikitzeko. Hori hala ere, zehaztu gabe dagoen asmoa da. Kaleberria 3-5 zen-

bakietan Exkerranea taberna zegoen eta hortik datorkio eraikinari izen hori. Etxea ofizialki bi eraikinez osaturik dago: *Oñandinea Aundi* eta *Oñandinea txiki*.

Osasun publikoaren alde

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde TOPA koordinadorak hitzaldia eskainiko du Andoain tartean den Tolosaldeko eskualde sanitarioari buruzko argibideak emateko. Hitzaldia datorren maiatzaren 28an izango da, asteazkenarekin, iluntzeko 19:00etan Urigainen.

Duela hiru urte, Osakidetza eta Asuncion klinika pribatuaren arteko itun baten bitartez, espezialitateen an-

bulatorioa desagitea erabaki zen. Ekintza onartezin horrek eragin zuen koordinadora sortzea. Izan ere, "pertsona eta herritar garen neurrian, kudeaketa publiko eta unibertsaleko osasun sistema batek artatzeko eskubidea dugu, inolako salbuespenik gabe, sistema hori mantentzeko eta hobetzeko gure zergak ordaintzen baititugu". Larunbat honetan Makaldegin mahaia ipiniko dute.

SAN ISIDRO EGUNEZ, GOIBURUN



Baserritarren eguna ospatzen da San Isidro egunez, maiatzaren 15ean. Andoainen, esaterako, bazkari ederra egi-

teko hainbat auzotar bildu zen Goiburun. Baserri eta landa eremuko herrikideen bilkura izan zen.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEARI

BAI

EMAN BOTOA

ehbildu
herrikerabaki

Migel Amasi omenaldia



Ekitaldira hurbildutakoek gorostia landatu zuten.

Arrasto handia utzi zuen **Migel Amasek** Andoaingo jendartean, bertako mendizaletasunean batik bat, eta bera hil eta urte betera omendu egin nahi izan zuten joan zen igandean, Etenetako zelaian. Ekitaldira hurbildutakoek gorostia landatu eta Migel Amas gogoratu zuten ekitaldian, bere nortasunaren aldeko adierazpen eta kantuen bidez. **Begoña Aranak** ekitaldirako idatzi zuen idatziak bere adiskide guztien sentimendua laburbildu dezake:

“Kaixo Migel, egun on!

Orain urtebete agur esan genizun, baina makina bat bider hitz egin dugu zu hizpide hartuta. Hainbat gauza etorri zaizkigu oroitzapenera...

Ikusten duzunez, lagun mordoak bildu gara gaur, bere garaian adierazi ez genizkizunak adierazteko, eta aldi berean, senti dezazun gurekin jarraitzen duzula. Egia esanda, alfabetoaren hitz bakoitzarekin, zure nortasuna definitzen joan gaitezke: euskal lurraren maitalea, adeitsua, adiskide eta bidaide bikaina, maitekorra, buru gogor-gogorrekoa, eskuzabala, fidela... Eta ez dut jarraitu nahi...

Batik bat, gutako askori natura eta mendia maitatzen erakutsi zenigun, bidea ari-nagoa izan zedin laguntzen zenigun, naturak eskaintzen dizkigun altxor guztiak ikus-tararazten zenizkigun, eta



Kantuan amaitu zuten ekitaldia.

horrela, mendizaletasuna geure bizitzaren parte izan zedin lortu zenuen. Zu zoriotsu zinen espazio natural horietan, geu ere zoriotsu izatea lortu zenuen. Guztiok soilik eskatzen dizugu ondo marka dezazun iaz hartu zenuen bide hori. Horretara, goizago edo beranduago, geuk ere bide horri heltzen diogunean, galdu ez gaitezen. Nolanahi ere, ziur naiz geurekin batera egingo duzula bide hori, bidaide gisa, beti egin izan zenuen bezala”.

Alfredo Kamio -Migel Amasen ilobak- eta **Antton Zubiaur**rek omena antolatu izanaren zergatia azaltzen zuen idatzia irakurri zuten, eta ekitaldiari amaiera emateko, “Txoria txori” eta “Agur Jaunak” abestu zuten Etenetako zelaian bildutako guztiek.

Arratsaldean, Mizpiradi sagardotegian 50 lagunek parte hartu zuten bazkarian.

Larunbat honetan Katramila antzerki taldearen eskutik

Basteron ikuskizuna



Miren Gojenolak zuzentzen duen helduen taldeak iluntzeko 20:00etan eskainiko du ikuskizuna.

Katramila antzerki eskolako taldeek larunbat honetarako jarri dute denboraldi-ko hitzordu nagusia. Saioz saio antzerkiarekin gozatzaren aritu dira, eta ikasturtea amaitzek den honetan, euren zaletasuna familiarekin, lagunekin eta herritarrekin partekatzea erabaki dute. Larunbatean aparteko emanaldia eskainiko dute, eta horretarako azken asteak entseguetan murgilduta igaro dituzte.

GAZTEENAK 16:30ETAN, DOAN

Hiru antzezlan prestatu dituzte: “Etorkizuna airean”, “Urrezko kakamokordoa” eta “Indiana Jonsen lapurreta”.

Eskuineko argazkietan, gazteen bi talde ageri dira Kristina Ropero antzerki irakaslearekin batera.

HELDUENAK 20:00ETAN

Miren Gojenolak zuzentzen duen helduen taldeak, azkenik, iluntzeko 20:00etan eskainiko du ikuskizuna. “Bastero... eta gero?” izena du prestatu duten muntaiak.



Lehen Hezkuntzako 4, 5 eta 6. mailakoen taldea: Aida Ruiz, Alba Pardo, Nahia Barea, Maider Diaz, Aner Alkain, Andoni Usandizaga, Irune Nuñez, June Miner, Nahia Sarasola eta Mattin Yusta.



DBHko taldea: Iker Suarez, Ane Lazkano, Ixiar Almortza, Xabi Alonso, Mikel Aménabar, Iurgi Benitez, Nora Urdanpilleta, Xabier Huizi eta Oier Otamendi.

The Tolkien Centre ingeles eskolako ikasleak

Zeelanda Berria helburu

Hainbat ekimen burutzen ari dira azken hilabeteetan, udan hara joateko asmoz. Azkene-koa, oraingoz, bigarren eskuko merkatu txikia. Argazkian, Nerea Makazaga, Sergio Palacios, Natalia Artetxe, Inge Lekuona, Eider Lizaso, Goretti Otegi, Ekain Bellanco eta Uxue Botas; Roger Wesley, Beth Channon (Gales) eta Kirsten Dollen (Alemania) irakasleekin.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

IKASTURTE AMAIERAKO OSPAKIZUNA HAMARGARREN URTEURRENAREKIN BATERA

Jaia eta urteurrena

Izartxo aisialdi taldeak, ikasturte amaierako jaiarekin batera, hamargarren urteurrena ospatu zuen Bekoplazan.

Kandelak piztu eta taula gainetik aisialdi elkartean funtsezko diren hiru oinarri nabarmendu zituzten: haurrak, gurasoak eta begiraleak.



Argazkian Sergio Garcia, Iker Zaldia, Unai Alkain eta Jimmy Brosa.



Euskal produktuen zozketan sariduna Maixabel Ormazabal izan zen.



Gurasoak eta haurrak ospakizun betean, Bekoplazan.



Ospakizunaren argazki ugari ikusgai daude LSBk Flickr-en duen gunean.

Izartxo aisialdi taldeak ikasturte amaierako ospakizuna baliatu zuen sortu zeneko hamargarren urteurrena ospatzeko. Tarta eta guzti, kandelak piztu eta zorionak abestu zuten. Tartak sinbolismo handia zuen. Ezkontza eta ospaki-

zun handietan bezala, tartak hiru solairu zituen. Hiru izateak bazuen bere garrantzia, bakoitzak taldearen ikur diren sektore bana ordezkatzen zuelako. Lehena, ikasleak edo haurrak ziren. Bigarrena, haur horien gurasoak. Eta, hirugarrena, aisial-

di taldeko begiraleak. Hori dela eta, zorionak abestera taula gainera igo ziren Unai Alkain haurra, Jimmy Brosa gurasoa, Sergio Garcia ikaslea eta Iker Zaldia Izartxoko hamargarren urteurrenako ekitaldien antolatzailerak.

Ospakizuna Bekoplazan egin zuten, ginkanarekin eta Ingo al deu? taldekoen kontzertuarekin. Izartxok eskerrak eman nahi dizkie Andoaingo Udalari, La Salle Berrozpe ikastetxeko guraso elkarteari eta baita Ingo al deu? taldeari ere.

Bertako elikagaien aldeko apustua



Egitasmoaren aurkezpena Galardi haurreskolan egin zuten.

Galardi Haurreskolan matrikulatzeko epea zabaldu dutela eta, Andoaingo Udalak berrikuntza nabarmena iragarri du datorren ikasturterako. Haurren elikagaiei dagokionez, Udalak Ekolapiko programarekin bat egingo duela adierazi du, eta gauzak horrela, bertako elikagaiak kontsumitzeko programa Galardi haurreskolan ezarriko da.

Bertako baserrietan ekoiztutako elikagaiekin elikadura ekologikoa eta osasuntsua txertatzea da Ekolapiko egitasmoaren helburua. Ekimenaren aurkezpenean erakunde ezberdinetako kideek parte hartu zuten: **Aitziber Ugartemendia** Hezkuntza eta kulturako Udal zinegotzia, **Ixiar Ansa** Galardi Udal haurreskolako zuzendaria, **Sabrina Pato** Ekolapikoko ordezkaria, **Juan Kruz Alberdi** Behe-mendi erakundeko kidea eta, noski, Andoaingo Galardi-erentzat barazki ekologikoak landuko dituten **Nerea Arsuaga** ekoizlea.

[Matrikulazioa zabalik: Maiatzak 26-ekainak 6](#)

PILOTAKADAZ PILOTAKADA EGITASMOA



Taldeko argazkian ehunka herritarrek hartu zuten parte.



Adiskidetasunezko partidak izan arren, ikusleek arretaz jarraitu zuten jokoa.

Eguraldi ederrarekin igaro zen "Pilotakadaz pilotakada" egitasmoa, presoaren eskubideen aldarrikapena eta kirola uztartzen dituen. Gaztetxeko pilota txapelketaren lehen partidak bertan jokatu ziren. Egun osoko jaia izan zen, herri bazkariarekin. Arratsaldean taldeko argazkia atera zuten.



KIROL ALBISTEAK

Kopa eta ligako txapelduna



Gipuzkoako emakumezkoen eskubaloia urrezko aroa bizitzen ari da, bereziki Bera Bera taldearen esku-tik. Azken urteotan lorpen handiak egin dituzte eta denboraldi hone-tan, esaterako, kopa eta liga irabazi dute. Tartean da **Nagore Ari-zaga** andoaindarra. Zorionak!

Udan kirola egiteko eskaintza Andoainen

Allurralde Kirol Patronatuak ekainaren 30etik uztailaren 24ra kirol ikastaro ezberdinak antolatu ditu, adin guztietako herritarrak gogoa harturik. Hilabete osokoa edo hamabostaldikoa izango da eskaintza, eta izen-ematea dagoeneko zabalik dago ekainaren 5a bitarte. Izena emateko ordutegia zabalda da, astelehenetik ostiralera: 09:00-13:00 / 17:30-19:30.

Haur eskaintza: Igeriketa, ludoteka goizean, tenisa edota eskalada.

Gazte eskaintza: Udabentura goizetan, futbola eta kirola, tenisa eta eskalada.

Junior eskaintza: Futbol & Fit, Fit & Fit, Fitness training, tenisa eta eskalada.

Helduen eskaintza: Zumba, balance, pump, spinning, combat, aquagyma, yoga, eskalada, patinak, aerobik + pump, aerobik + balance, pump + balance, pump + spinning, pump + combat, spinning + combat, igeriketa.

Emakumezkoen lehen partidak Sorabillan, Iturzaeta memorialean



Sorabillako txapelketan parte hartzen ari diren hainbat pilotari.

Abian da Iturzaeta memorialeko emakumeen pala txapelketa herrikoia. Hamabi bikote lehian txapelaren atzetik, bi taldetan banatuta.

A taldean: Ainara Beraza-Ane Jalon, Rakel de Jesus-Sara de Jesus, Garbiñe Ugalde-Amaia Gonzalez, Naiara Zen-

doia-Oihana Arruti, Ainara Loiarte-Irati Amondarain eta Olatz Esnal-Neide Garmendia.

B taldea: Garazi Usandizaga-Irati Loiarte, Amaia Imaz-Eneritz Agirre, Alaine Jauregi-Elixane Jauregi, Ainari Abrego-Izarne Oiarzabal, Ekiñe Men-

dizabal-Aloña Ugalde eta Esti Aizpuru-Alazne Uri.

Norgehiagoka bikain eta lehiatuak ikusi ahal izan ziren joan den asteburuan Sorabilla-ko pilotalekuan. Hamabi partida iragarri dira asteburu honetarako. Ostiralean zein igandean, 19:00etatik aurrera jokatu-



Naiara Zendoia.



Ekiñe Mendizabal.

ko dira. Larunbatean, berriz, mutilek neurtuko dituzte indarrak 15:30etatik aurrera.

Atletismoan trebatzeko saioa Ubitarten

Andoaingo ikastetxeetako ikasleek atletismoko lau espezialitateetan jarduteko aukera eduki zuten joan den larunbatean, Ubitarteko pistan. Las-terketan, altuera-jauzian, luzera-jauzian eta pisu-jaurtiketan trebatu ziren, Zumeatarrako atletismo saileko kideek gidatuta. Tartean beterranoen mailan aski ezaguna den Pako Arnaiz eta beste zenbait lagun ere. Askori berriak egin zitzaizkien espezialitate horiek, baina nahiko ondo moldatu zirela aitortu behar da. Urtean zehar futboleko, saskibaloiko eta eskubaloiko aritzen dira horiek guztiak.

Atletismoa Andoainen indar hartzen ari den kirola da azken urteetan. Horren lelu da Zumeatarrako atletismoko sailak, iaztik, gaztetxoei begira abian jarri duen eskola; Eva Pelaez eta Joxean Alberdik zuzenduta, makina bat gazte atletismoan trebatzen ari dira.



Luzera-jauzian trebatu zituzten.



Atletismoa, azken urteetan, Andoainen indarra hartzen ari den kirola da.





KIROL ALBISTEAK

Gaztañaga lehen taldekoa da



Realak asteartean aditzera eman zuenez, datorren denboralditik aurrera **Jon Gaztañaga** lehen taldeko jokalaria izango da. Andoain-darrak egindako adierazpenetan poza nabarmena zen, "oso pozik nago lehenengo taldera saltoa emateagatik, izan ere, hamaika urterekin etorri nintzenean nire ametsa lehenengo taldera iristea zen. Azpiko kategorietan dauden guztien ametsa da hona iristea, horregatik, poza sentitzet dut. Orain, ordea, lanean gogor jarraitzeko ueña da, ahalik eta minutu gehien edukitzeko. Eguneroko entrenamenduetan ahal dudana hobekien lan egiten jarraituko dut". Zorionak Jon!

Joxe Barberenari omenaldia



Pilota, txirrindularitza, eskubaloia, futbola eta beste hainbat jardueretako ordezkariak Ubitarten, Kirol Astearen aurkezpenean.

Herritarrek, kirol elkarteek eta kirol patronatuko ordezkariak hala erabakita, aurtengo Kirol Merezimenduaren sariduna Andoaingo Txirrindulari Eskolako **Joxe Barberena** izango da.

1985ean Andoaingo txirrindulari eskola sortu zuen guraso talde batekin eta geroztik eskolako buru izan da. Bera ere gazte garaian ziklokrosean eta errepidean afizionatu mailan ibili zen.

Txirrindularitza munduan eta Andoaingo gizarte bizitzan

oso estimatua da Barberena; Andoaingo txirrindularitzaren alde egin duen lana nahikoa arrazoi bada merezimendu saria emateko. Ibilbide emankor hori datorren ekainaren 5ean sarituko dute, Basteron egingo duten ekitaldi nagusian.

Omenaldi ekitaldiarekin batera, ekitaldian ere urtean zehar kirol arloan izan diren lorpenak gogora ekarriko dituzte.

Aurtengo Kirol Astea ekainaren 2tik 8ra bitarte ospatuko da "Jokatu jator kirolean"

izenburupean. Izan ere, kirol guneetako liskarrak joko-ze-laietan gertatzeaz gain, armailetan eta aldageletan ere gero eta ohikoagoak direla ikusita, kirolarien errespetuzko jarrera eta portaera egokiak bultzatu nahi dituzte Udal Kirol Patronatuak eta kirol elkarteek.

Lehen egunetan Goiburun golfa doan egiteko aukera izango da eta Allurralden Leizaran elkartearen 35. urtemugako erakusketa ikusgai egongo da hilaren 30etik hasita.



Imanol Odriozola, kadete mailakoa.

UKEko kadete mailakoak, bikain

Eskuz banaka Udaberri txapelketan eta eskuz binaka Euskal Herriko trinkete txapelketan, partida guztietan garale izan ziren.

Udaberri txapelketa
Eskuz banaka, 4 1/2

Urnieta 22-Añorga 11.
Inhar Oiarzabal.

Ikaragarri ondo aritu zen, indartsu. Aurrerari oso zailaren aurrean, gainera. Exposito bere mailan onenatarikoa baita. Erasokor aritu zen aurrerari, baina urnietarrak defentsan gogor egin zuen lan. Bikain, gainera, 22. tantoa. Sake gaiztoa, aurrerariak erantzun eta honek ezkerrekin eta efektuaz txokoa utzi. Tanto eder horrekin final zortzirenetan jokatzeko sailkatu da.

Urnieta 22-Hondarribia 13.
Imanol Odriozola.

Pixkanaka egokituz doa eta aurrerari garaitzeko gai izan zen. Emaila onak berandu samar iritsi dira. Ligaskan hirugarren sailkatuta, Udaberri txapelketatik kanpo geratu da. Bere maila onena emateko Ekialde txapelketan eskaini ahal izango du.

Euskal Herriko trinkete txapelketa

Berio-Otxoa 34-Urnieta 40
Imanol Odriozola-Inhar Oiarzabal
Asteburuan lan eta lan aritu ziren biak. Partida honetan amaiera arte sufritzen aritu ziren. Azkar batean alde nabarmena lortu zuten markagailuan (2-15), baina atzetik jarri ziren partidaren azken aldera. (34-29). Sakean eta pilotakadatan, Imanolek bere onena atera zuen.

Andoaingo txirrindularitza

Jubenilak. Segura. Maiatzak 18:

1. Dani Mayora (Ampo)
2. Gotzon Martin (Ugao)
3. Mikel Alonso (Andoaingo)
25. Gaizka Mayo (Andoaingo)
45. Peio Manterola (Andoaingo)

Kadeteak. Villatuerta. Maiatzak 18:

1. Iñigo Elozegi (Autonervion)
 2. Jokin Alberdi (Andoaingo)*
- *Gaztetxoa torneoko buru da.



Agur Herriartekoari



Herriartekoan itzuliko partida Donostiako Atanon jokatu ostean, Andoaingo taldeak agur esan dio aurtengo partaidetzari. Lastima. Zorte on etorkizunean!

Kadeteak: Donostia 16-22 Andoain
Asier Iraola - Imanol Usandizaga.

Jubenilak: Donostia 22-2 Andoain
Ander Olasagasti - Mikel Arberas.

Nagusiak: Donostia 22-16 Andoain
Aritz Eskudero - Unai Etxeberria.

Andoaingo areto futbola

A Taldea | 7. Jardunaldia

Fruteria Aritz 3-6 Ekhi
Galpasitx 3-3 Centro Extremeño Fs
Keler 11-0 Bar Txalaka
Metalicas Oleta 0-3 Aure-Maiton
Sailkapena:

1 Keler	16
2 Cd Centro Extremeño Fs	16
3 Pinturas Aure Bar Maiton	15

B Taldea | 6. Jardunaldia

Pausoka Elkartea 2-11 Medallo 21
Academia G.F 11-1 Ondarreta
Autoescuela Mendi 4-7 Leiza 77
Ekaitz 2-2 Hogar Extremeño Andoain
Sailkapena:

1 Ekaitz	13
2 Leiza 77	12
3 Hogar Extremeño Andoain	11



GINNASIA ARTISTIKOKO ERAKUSTALDIA

Maiatzak 24
15:45etan
Unietako kiroldegian

**FELIPE IZAGIRRE • URNIETA**

Europa begira

Europara begira jarri gaituzte eta denak prest European egotearen bertuteak gorai-patzeko. European erabakitzaren direla gai nagusiak, laguntzak ere, asko eta asko, handik datoze-la; giza eskubideak ere askotan han bermatzen direla, edo behintzat, Estatuek hartutako zenbait erabaki han aztertu eta zenbait atzera bota ere bai. Adibide garbia dugu Parot doktrinarekin gertaturikoa.

Nik, egia esan, nahiz eta dugun Europarekin ados ez egon, gero eta garbiago ikusten dut Europan kokatzeak abantaila asko dakartzala. Ekonomian ez naiz iaioa, baina ez da oso aditua izan behar egunerokoan, gure ekonomian gertatzen dena Europatik eta nazioko gobernutik datozen murrizketa, langabezia eta gainontzeko miseriak gurean pairatu, gurean eta gure inguruan eta, beraz, horretaz jabetzeko. Baina, ekonomiatik haratago gustatu zaizkit giza eskubideei dagozkien zenbait ebazpen, hala nola, Parot doktrinarena eta beste zenbaitena. Jakina, Europan kokatzeak eta Europari begira egoteak ez du esan nahi gurea, gure arazoetatik ihes egin behar dugunik; alderantziz, hor maila batzuk daude, eta, noski, lehenenegoa gure herria da, bizi garen herria eta komunitatea. Eta galdera da: Nolako Europa nahi dugu? Hor dago koska.

Hor ditugu alderdiak, nork bere produktua saldu nahian. Aukerak asko eta kolore guztietakoak. Askok errepikatzen dute, eta, beste zenbait lehen aldiz abiatu dira Europara. Hor daude bi handi, bipartidismoa deitzen dena eta aspal-ditik hor dabiltzanak: PP eta PSOE. Jakina, alderdi hauek European badituzte kideak eta denen artean multzo handi bat egiten dute. Eraiki duten Euro-pak eraman gaitu gauden ego-erara; ez dute, beraz, ahalegin asko egin gure ongizartea hobetzeko. Hor dago Ezker Ani-tza Estatuko Izquierda Unidan kokatua eta, horiek ere badi-tuzte beren kideak baina, gutxi izanik, ezer gutxi egin dute. EH Bildu ere lehengo aldiz doa. Agintzen digunez, subiro-natasunaren arazoa Europara eraman nahi du, ea Europak eskua luzatzen digun gaia be-har bezala konpontzeko. Kon-tua da, eta kanpainen ikus dai-tekeenez, jendeak, herritarrek, ez dutela interes gehiegi ager-

tzen, eta denak ere beldur di-
 rela abstentzio kopurua handia
 izanen ote den. Eta seguruenik
 izanen da, zalantzarik gabe, ez
 baikaude Europara begiratzera
 ohituta. Lehen esan bezala, ba-
 koitzak du Europaren bere iru-
 dia. Beste kontua: PPK eta
 PSOEk sartu nahi digute be-
 raiek direla Europa sozial bat
 eraiki dezaketenak eta alderdi
 txikiek ez dutela eraginik izan-
 nen, eta, beraz, edonon direla
 beraiei bozka emateko esango
 digute. Egia da, nahiz eta al-
 derdiek beren programa azal-
 du, zaila egiten zaigula aukera
 egitea hauta, hor dago, norbe-
 raren baitua eta azkenean ho-
 rrek balio du.

Halere, eta Aiuurrik ematen d-
dan aukera aprobetxatuz talde
berri baten berri eman nahi di-
zuet: alderdi gisa aurkeztu da
halabeharrez, noski, baina be-
raien barne funtzionamendua ez
da ohikoa. Horrez gain, beraien
jendea gizarte mugimenduetatik
dator eta funtzionamendua era-
bat horizontala eta demokrati-
koa da. Eta, garbi eta argi gera-
bedi ez naizela propaganda egi-
ten ari, baizik eta talde berri ho-
nen berri ematen. Alderdi berri
horrek Ahal dugu (Podemos) du
izena eta zerrendaburu Pablo
Iglesias unibertsitateko irakaslea
da. Gipuzkoatik 18 urteko neska
euskaldun bat doa, benetan fres-
koa eta azkarra. Aiuurri irakur-
tzen dutenen artean izanen dira
gizarte mugimenduetan parte
hartu dutenak eta agian interesa-
tzen zaie honen berri izatea.

Hemendik aurrera norberak har beza bere erabakia ezen edozein dela ere errespetu handia behar baitu. Inkestak ordezkari bat ematen diote eta, EH Bilduri ere zortea opa diodan heinean, Ahal Duguri ere gauza bera opa diot. Talde txikiak eta ezkertiarak elkartzuz, handien eragina oztopa dezaten.

Eta bukatu aurretik gaurko berri batek sorrarazi didan emozioa azaldu nahi nuke:

ARGENTINA EUSKAL HERRIRA

Abenduan Euskal Herritik Argentinara joan ginen Frankismoaren krimenak salatzeraz. Oraingoan, guztion harridurarako, Servini epailea bera etorri da Euskal Herria hurbiletik ezagutzera eta zenbaiten adierazpenak entzuteraz, besteak beste, Julen Kalzada Zamorako kartzelaz egonikoa eta bere arreba, aita Busturiako zinegotzia zela hil baitzuten frankistek. Serviniren bidaiak poztu egin nau ezen Argentinan egon ginenean horixe eskatzen genion, etor zedila bera gertatutakoa ikustera. Ziur nago emakume honek ahaleginak eta bi eginen dituela Frankismoa epaitu eta memoria erreparatzeko. Ongi etorria Servini anderea!!!

HITZ-GEZIDUNAK

* Artista andoaindarra

				Behe ganbera	▼	Barakuilua, marraskiloa	▼	Izatasuna dutenak	▼
				Hegazti harrapari		Pinu mota		Egoskin mota	
				▶		▼		▼	
				* IZENA	▶				
				Arrastoak	▶				
Kezka eragileak	▼	Luzera unitatea	▼	Tona, labur-labur	▶	Lehenengo bokala	▶	Iodoaren ikurra	▶
Mamitsua		* DEITURA		Txistua, listua		Kontso-nantea		Ukapenak, ezezkoak	
▶		▼		▼		▼		▼	
Uztaia	▶					Erakunde xenofobo	▶		
Maindirea, mihisea						Burruntzali			
▶					Arrazoi	▶			Joan den urtean
					Kontso-nantea	▼			
Ale landare	▶			Itxura ederreko	▶				▼
Golko txikia				Galderetan					
▶				▼		Koloka	▶		
						500			
Zerbaiti kea darion aldi bakoitzea	▶				▼			Azkeneko hizkia	▶

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

EZKER ESKUIN: 1.- Sakonago bihurtuak. 2.- Bokal biribila. Bizkaiko udalerria, Durangaldean. 3.- Internet Protokoloa. Alokairu. 4.- Bibliako pertsonaia. Gizon zahar. 5.- Sua salatzen du. Sexu emea. 6.- Arraza. Bizkaieraz, sobera. 7.- Asiako mendebaldeko ibaia. Kriptona balio du. 8.- Garbizaleen kafeak. Bokala. 9.- Koroa jan-tzirik errege nahiz erregina izendatuak.

GOITIK BEHERA: 1.- Soiltzeak. 2.- Bokala. Oler-
tari dagokio. 3.- Hasieran du keinuak. Maroko-
ko hiria. 4.- Burdinola. Nerbio. 5.- Zer modutan.
Guraso arra. 6.- Atsegina eta harekiko menpeko-
tasuna sortzen duen substantzia. Sagu, hitz elkar-
tzeetan. 7.- Donostiako mendia. Errepublikatuz, txo-
ri mota. 8.- Keinuak. Bokala. 9.- Asiako lurralde
batekoak.

GOITIK BEHERA

Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharrekoak

1						
2						
3						
4						
5						
6						
7						
8						
9						

1. Basa landare mota; lore zuri, arrosa edo gorriak ditu. 2. Emakume izena. 3. Etorkizuna. 4. Biba! 5. Garai, aldi. 6. Ipar Euskal Herrian, ardo. 7. Norabait. 8. Ipar Euskal Herrian, oraindik. 9. Amerikako Aintzira Handietako txikiena.

ERANTZUNAK

[illegible]

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larrumendi
Kultur Bizkaria



TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:



Aldizkari honek
bi udalerri hauen
dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne
Olano, Joxeba Lizeaga
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu

txikia:
diseinua@aiurri.com
www.aiurri.com
Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea,

banaketa
arduraduna:
Garbiñe
Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzailak:

Mikel Arregi
(Andoain), Gaizka
Bernardo (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.



Agenda

MAIATZAREN 22TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

Asteburu honetan ez da zine emankizunik egongo.

■ **“Aprendiz de gigolo”.**

Lar., 31. 19:30 / 22:00.

Igandea, 1. 19:30.

Astel., 2. 19:30 / 22:00.

■ **Opera zineman: “Aida”.**

Giuseppe Verdi. 20:00.

Denboraldiko azken saioa.

Ekainak 11, asteazkena.

Urnietan, Sarobe

■ **“La bella y la bestia”.**

Ostirala, 23. 22:00.

Igandea, 25. 18:30.

Literatura

Andoain, Liburutegia

■ Literatur solasaldia:

“Kristalezko begi bat”.

Izena emateko:

liburutegia@andoain.org.

Maiatzak 27, asteartea.

Batzarra

Andoain, Gaztetxea

■ Etorkizunari begira hausnarketa egin nahi dute Gaztetxeko kideek, batzarraldi irekian.

10:30. Gaztetxea.

Maiatzak 24, larunbata.

Bozak

Andoain, Urnietan

■ Europako Parlamenturako hauteskundeak, igande honetan. Goizetik iluntzera arte bozka emateko ohiko tokiak zabalik izango dira. Maiatzak 25, igandea.

Erakusketa

Andoain, Bastero

■ Pablo Donezar:

“Hamsterra bere gorpilean”.

Ekainaren 21a bitarte.

Odol-emaileak

Urnietan

■ 18:30-20:30.

Maiatzak 30, ostirala.

Pailazoak

Urnietan, Egape

■ **Bizipoza** Pirritx eta Porrotxen berriena. Salgai: Kantoi, Amailur, Ernaitza, Aiurri.

17:30. 7 euro.

Maiatzak 28, asteazkena.

Gazte festak

Urnietan

■ Hitzordu nagusiak, ostiraletik igandera.

Maiatzak 30-ekainak 1.

Kanpaina

Andoain

■ Udalak eta Salkin merkatarien elkarteak ekimen berria martxan jarri dute, maiatza osoan zehar luzatuko dena. 5 euroko erosketa egiten duenak herri barruan ibiltzeko bus txartela eskuratuko du. Maiatzaren 31 bitarte.

Antzerkia

Andoain, Bastero

■ **Katramila** taldearen ikasturte amaierako ikuskizuna.

16:30 Ikasleak.

20:00 Helduak.

Maiatzak 24, larunbata.

■ **Santi Millan** aktorea bere ibilbideko emanaldi jostalari eta pertsonalarekin.

20:00. Auditorioa. 15 euro.

Maiatzak 25, igandea.

Uda

Andoain

■ **Goazen jolastera**, “Andoainen bertan nahiko jolas egiteko udalekua”.

Izen-ematea: 17:00-19:30.

Astearte eta ostegunetan:

10:30-12:30. Gazte Lokala.

Ekainaren 5a arte.

■ **Udalekuak** Bihurriren eskutik: patinaia, euskal dantzak, etab. Uda honetako eskaintza.

Ekainak 25-irailak 5.

943 305 852.

bihurri@bihurri.net.

Rallya

Urnietan

■ Argazki-rallyaren edizio berria Urnietan, igande honetan. Xehetasun guztiak, 4. orrialdean.

09:30 Izen-ematea: Sarobe.

10:00 Hasiera.

Maiatzak 25, igandea.

Matrikula

Andoain

■ Musika Eskolan aurrematrikula egiteko epea astelehenean amaituko da. Izena emateko: Bertan bulegoa (07:30-14:30) eta Lekaio (ostegun arratsaldez itxita). 943 008 035.

lourdesiriondo@urnieta.org

Epea: Maiatzak 26.

Ospakizuna

Andoain, Etxeberrieta

■ **“Udaberria zelaian”** jaia.

16:00 Haur jolasak belardian: “Har ditzagun zelaia, atera ohialak eta etzan lasai!”.

17:00 Piano doinuak. Haurren askaria.

18:00 Zozketa eta afari-me-rienda.

21:00 Musika zuzenean: Ostruka's band.

Maiatzak 31, larunbata.

Bazkaria

Andoain

■ 1949an jaiotakoek bazkaria egingo dute, Oianume jategian. Aldez aurretik izena eman beharra dago.

Patxi: 606 927 468.

Jose Joaquin 660 798 128.

13:30 Taldeko argazkia.

14:30 Bazkaria.

Ekainak 7, larunbata.

Musika

Andoain, Bastero

■ **Benito Lertxundi** kantaria zuzenean arituko dira.

22:00. Auditorioa.

Ekainak 7, larunbata.

ZORION AGURRAK

URREZKO EZTEIAK



Hilaren 21ean aitona-amonaren urrezko ezteiak, eta 23an amonaren urtebetetzea. Milazorion! Zuek ere indako zoriontasunaren haziak guregan hazten jarrai dezala. Etxekoak.

URNIETA

ZORIONAK



Maiatzaren 14an eta 19an urteak bete dituzue. Zorionak eta muxu asko etxeko gizonen partez.

URNIETA

ZORIONAK



Maiatzaren 19an **Unaxek** lehenengo kandelatxoa itzali zuen. Zorionak! Etxekoak eta bereziki **Unax** eta **Aner** lehengusuen partetik. Muxuak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Oinatz Zatarain Korrotxanok hila-ren 23an 3 urte. Zorionak! Etxekoak eta bereziki **Unax** eta **Aner** lehengusuen partetik. Muxuak.

ANDOAIN

ZORION AGURRAK

diseinua@aiurri.com
www.aiurri.com



Batzarra Gaztetxean

Andoaingo Gaztetxeko kudeatzaileek deialdi irekia egin dute larunbat honetarako: “Aurtengo azaroan Andoaingo Gaztetxeak 30 urte beteko ditu. Urte hauetan guztietan milaka bizipen, ekitaldi eta amets gauzatu dira. Gaztetxe zaharra, berria, urtemugak, txapelketak..., 30 urteren ondoren gaztetxearen ziklo berri bati hasiera emateko garaia da. Horretarako batzar irekia antolatu dugu herriko gazteen irudipen eta ideiak jasotzeko, eta bertara gonbidatu

nahi zaitugu. Batzarra maiatzaren 24an, larunbatarekin, goizeko 10:30etan Andoaingo Gaztetxean burutuko da. Garrantzitsua da guztion parte hartzea, ziklo berri honetan denon iritzia eta parte hartzea beharrezkoa da! Anima hadi gazte! Gaztetxea gaur eta beti bizirik!”.

Egitaraua honakoa da:

- Aurkezpena.
- Gaztetxearen ibilbidea.
- Egoeraren hausnarketa.
- Etorkizuneko erronkak.

andoaingogaztetxea@gmail.com

Poxta Zahar Gazte festetan

Unietan Gazte festak gerturazten ari dira eta Poxta Zahar gazte elkarteak hainbat ekimen jarri ditu martxan, maiatzaren 30a eta 31ra begira.

Ostiraleko “Intzank hik!” ekimenerako txartelak salgai daude euro batean.

Larunbaterako koadrilen bazkariko txartelak ere salgai daude 13 euroko prezioan. Bazkaria San Juan plazan egitekoa da, baina euria-rekin Egape ikastolako jantoki estalian egingo dute.

Bi kasuetan maiatzaren 27a baino lehen erosi behar dira Amailur eta Xauxar tabernetan.

OSTIRAL GAUEKO MUSIKA

Poxta Zaharrek argitaratu duen kartelean aurtengo kontzertuko taldeak iragarri dituzte. Hauexek alaituko dute festa: Besteik Pe!, Keep Shake eta Rude Kanka Sound & Kobo Jah.

LARUNBAT GAUA LUZEA

Mahozo jantziak soinean festara agertzeko deia egin dute. Festa, gainera, igande goizaldera arte luzatuko da. Goizeko ordubetan joko inprobisatuak iragarri dituzte eta goizeko seiretarako mozkor entzierroa. Gosaria ere iragarrita dago, bezperako afarian sobratutakoarekin.

PiRritx, Porrotx eta MaRiMotots

Sarrerak dagoeneko salgai:
Urnieta < Kantoi, Amailur.
Andoain < Aiurri, Ernaitza.
Hernani < Ametsa.

**Datorren
astean!**

Maiatzak 28, asteazkena
17:30. 7 euro
Egape ikastola • Urnieta

Urnieta

BIZIPOZA